



Gipuzkoako Mendizale-Federazioa
Portuetxe 23 B
CEMEI eraikina
2-15 bulegoa
2018 DONOSTIA

GAIA: GAMELUAN, ALTZAITURRIN, SANTA BARBARAN ETA ALLEPUNTAN ESKALATZEKO INGURUMEN BAIMENA

Gipuzkoako Mendizale Federazioaren bitartez eskaera bat egin zaio gure Zuzendaritzari, Gamelua-Mendiola (Donostia), Altzaiturri-Tortotx (Andoain), Zamariko Zuloa-Santa Barbara (Zarautz) eta Allepunta (Zarautz) haitzetan eskalada baimendu daitekeen jakiteko.

Eskaera hori Gipuzkoako Mendi Federazioak habian jarritako egitasmoarekin bat dator: Gipuzkoan eskalada modelo jasangarri bat ezartzea. Gauzak horrela, eta aurreko kasutan egindako moduan, egitasmoak natura-baliabideetan izan lezakeen eragina aztertu da.

Alde horretatik, ikusi da kontuan hartu beharrekoak direla bai Europar Batasunarentzat interesekoak diren habitaten babesa eta bai espezie mehatxatuena ere.

Eskalatu nahi den gunea Kontserbazio Neurriek babesten duten gunetik at geratzen da. Zentzu horretan, eskalada bateragarri ikusten da babestutako inguruneari dagokionez.

Espezie mehatxatuei dagokionez, berriz, Basozainek azken urteetan egindako jarraipen txostenetan eta erroldetan oinarriturik ikusten da bertako espezieen eta eskalatzaileen arteko elkarbizitza bideragarria dela.



Horiek guztiak kontuan hartuta, eta Natura Kontserbazeko Legean oinarrituta, ondorioztatzen da aipaturiko lau guneetan eskalada **urte guztian zehar egitea onargarria dela**. Debekuaren iraupena urtero ebaluatu ahalko da, bertako espezieen bilakaeraren arabera.

Bukatzeko, Gipuzkoako Mendizale Federazioari eskatzen zaio erregulazio hori bete eta errespetarazten lagundu dezatela.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesatuek ebazpen honen aurka **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokete Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendariari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita **HILABETEKO** epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Donostian, 2018ko iralaren 25ean.

Sin: Mikel Zabala

Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuko Erdi

Mailako baso teknikaria

Sin: Iñigo Mendiola

Basanimalien eta Landareen Zerbitzu

burua

Sin: Ismael Mondragón

Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko

Zerbitzu burua

